



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/05/11

## **Bilboko Portuko Agintaritzak itsasadarreko errepidean "bidegorria" eregiteko lau alternatiba aurkeztu ditu Batzar Nagusietan**

Asier Atutxa Bilboko Portu Agintaritzaren Presidenteak eta Carlos Alzaga Portuko zuzendariak, Bizkaiko Batzarrek eskatuta, Getxo, Leioa, Erandio eta Bilboren arteko BI-711 errepidean, itsasadarren paraleloan doazan 6,1 kilometrotan, bidegorria jarteko aukeren inguruko azterlanaren edukinari eta norainokotasunari buruzko argibideak emon ditue gaur Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordean. Agintari biek, Iniciativas Ambientales enpresak planteau dituan lau soluzinoak azaldu ditue batzarretako taldeen aurrean. Alternatibak, soluzino "merkeenaren" "173.000 euroetatik", "asmo handieneko" soluzinoaren "ia 24 milioi euroetara" mobitzen dira.

Bilboko Portuko Presidenteak azaldu dauenez, txirrindularientzako ibilpidea eregiteko proiektuak itsasadarreko errepideko "6,151 kilometro" hartuko leukez. Igazko abendura arte, portuko erakundearen ondarearen barruan egoan. Atutxak azaldu dauenez, abenduaren 17an Kontseiluak, portuko "serga bide" zahar horren parte bat zuzenean transferitzea onetsi eban, eta zehatzago esanda, "833 metro" Bilboko Udalari eta beste "43 metro" Getxoko udalerriri. Oraindino doban lagateko falta dira Leioan dagozan "1.724 metroak", urtearen bukaeran lagako diranak, eta Erandio zeharkatzen dabena eta Portuko kontuetan dituan ondorioak dirala eta "epeka" egingo litzatekezan "3.512 metroak", Atutxak adierazo dauenez.

Atutxak batzarretako taldeen aurrean baieztu dauenez, Portu Agintaritzak ezin dau bere gain hartu planteau diran soluzinoen kostua, legeak ez daelako horretarako aukerarik emoten. "Ikuspegi juridikotik ezinezkoa da dirua zeregin horretara zuzentzea", esan dau, bera buru dan erakundea errepideko mantentze lanak egiteaz "gizarte erantzukizunarengaitik" arduratu dala adierazo ostean. Horrez gain, Batzar Nagusiek eskatuta, agindutako azterlana egin dau, eta horrek "25.000 euroko" kostua izan dau. Atutxak adierazo dauenez, Portuak, lurzorua lau udalerriei doban lagateagaitik izango dauen ondare galerea "2.782.000 eurokoa" izango da. Horreetatik "1.923.000 euro" Erandion dagozan lurzoruei jagokez, eta "569.000 euro" Leioan dagozanei.

Carlos Alzaga Bilboko Portuko zuzendariak zehaztu dauenez, azterlanak lau soluzino planteetan ditu. "A" alternatibak, "xumeenak", "173.000 euroko" kostua izango leuke, eta 357 aparkaleku kenduko leukez, Altzagan (Erandio) batez be, eta ez litzteke lurrik okupauko. Gaur egungo plataforman automobilak eta bizikletak egongo litzatekez, seinaleztapena indartuz.

"B" alternatibak, "4,9 milioi euroko" kostua izango leuke, eta "ia 350 aparkalekutan izango leuke eragina". Lurraren okupazioa "3.700 metro karratukoa" izango litzateke. Soluzino horretan txirrindularia motordun ibilgailuetatik berezita joango litzateke, gorriz margotutako eta errepidetik jagokon karelaren bitartez banandutako "metro biko zabalerako" bidegorri batetik.

"C" soluzinoa garestiena izango litzateke, "ia 24 milioi euro". Itsasadarreko hainbat zatitan "sei metroko luzerako" (hiru metro bidegorrirako eta metro bi oinezkoentzako) urtenunea eregi



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

beharko litzateke. Hori holan egin ezker, erabilera horreek eta ibilgailuen trafikoak guztiz independenteak izango litzatekez. Horretarako beharrezkoa izango litzateke “bost mila metro karratu baino gehiago” okupatea.

Eta, bukatzeko, Alzagak esan dauenez, badago laugarren alternatiba bat, garestienaren antzekoa, baina “16,3 milioi euroraino” jeisten dana, urteunak zati laburragoetan eregiz, “300 aparkaleku baino gehiago kenduz” eta “2.275 metro karratu” okupatuz. Aukera hori aurrera eramateko, aurrekoagaz gertatzen dan moduan, beharrezkoa izango litzateke Kosta Erakundearen eta URA agentziaren on ikusia izan beharko dauen “azterlan hidraulikoa” egitea, lur azpian mikropiloteautako esturturek itsasadarrak gora egiten dauenean izango leukien eraginaren inguruko neurketak egin beharko litzatekezalako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
11/05/2017

## **La Autoridad Portuaria de Bilbao presenta en Juntas Generales cuatro alternativas para construir un "bidegorri" en la carretera de la ría**

El Presidente de la Autoridad Portuaria de Bilbao, Asier Atutxa, y el director del Puerto, Carlos Alzaga, han presentado hoy en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial, a petición de la Cámara vizcaína, el estudio de alternativas para la implantación de un "bidegorri" en la BI-711, en los 6,1 kilómetros de carretera paralela a la ría que atraviesa los municipios de Getxo, Leioa, Erandio y Bilbao. Ambos dirigentes han explicado a los grupos junteros las cuatro soluciones planteadas por la empresa Iniciativas Ambientales que se mueven entre los "173.000 euros" de la solución "más barata", hasta los "casi 24 millones de euros" de la "más ambiciosa".

Según ha explicado el presidente del puerto bilbaíno, el proyecto de construcción de una ruta ciclista afectaría a "6,151 kilómetros" de la carretera de la ría que hasta diciembre pasado formaba parte del patrimonio de la sociedad portuaria. Atutxa ha explicado que el Consejo aprobó el 17 de diciembre la transferencia directa de parte de este viejo "camino de serga" portuario, en concreto, "833 metros" al ayuntamiento de Bilbao y otros "43 metros" al municipio de Getxo. Quedarían por ceder de forma gratuita los "1.724 metros" asentados en Leioa "a finales de año", ha confirmado Atutxa, y los "3.512 metros" que atraviesan Erandio y que se harían "por plazos" debido a las consecuencias que dicha cesión tendría para el balance de la sociedad portuaria.

Atutxa ha confirmado a los grupos junteros que la Autoridad Portuaria no puede hacerse cargo del coste de las soluciones planteadas porque la ley se lo impide. "Existe imposibilidad jurídica para destinar dinero a este cometido", ha dicho, después de advertir de que la sociedad que preside se ha encargado de realizar labores de mantenimiento de la carretera "por responsabilidad social" y ha elaborado, a petición de las Juntas Generales, el estudio encomendado que ha tenido un coste de "25.000 euros". Atutxa ha cifrado en "2.782.000 euros" la pérdida patrimonial del Puerto por la cesión gratuita del suelo a los cuatro municipios, de los que "1.923.000 euros" corresponderían a suelos ubicados en Erandio y "569.000 euros" a los de Leioa.

Según ha detallado el director general del Puerto de Bilbao, Carlos Alzaga, el estudio plantea cuatro soluciones. La alternativa "A", la más "sencilla", tendría un coste de "173.000 euros" con la eliminación de 357 plazas de aparcamiento sobre todo en Alzaga (Erandio) y sin ocupación de suelo. Convivirían coches y bicicletas en la plataforma actual mediante el "reforzamiento" de la señalización.

La alternativa "B" supondría un coste de "4,9 millones de euros", con "casi 350 plazas afectadas" y con una ocupación de suelo de "3.700 metros cuadrados". En esta solución el ciclista iría separado del vehículo motorizado a través de un bidegorri de "dos metros de ancho" pintado en rojo y separado de la carretera mediante el correspondiente petril.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La solución “C” sería la más cara, “casi 24 millones de euros”. Haría falta construir un voladizo sobre varios tramos de la ría de “seis metros de ancho” (tres metros para el bidegorri y dos para peatones), lo que supondría independizar estos usos de los tráficos de vehículos. Sería necesario ocupar “más de cinco mil metros cuadrados”.

Y, por último, Alzaga ha precisado que existe una cuarta alternativa que se asemeja a la más cara pero que se reduce hasta los “16,3 millones de euros” ya que se optaría por la construcción de un tramo más corto de voladizo. Esta opción llevaría la eliminación de “más de 300 plazas de aparcamiento” y la ocupación de “2.275 metros cuadrados”. Dicha alternativa requiere, como la anterior, la elaboración de un “estudio hidráulico” que debe tener el visto bueno de Costas y URA, ya que exige hacer mediciones sobre cómo afectarían las estructuras micropiloteadas en el subsuelo ante las crecidas de la ría.